

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2021eko ekainaren 15ean Udaletxeko Udalbatza Aretoan
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-19:00

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARIA: Jon Insausti_EUSKARAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
Miren Azkarate_EAJ

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Ainara Vázquez_BAGERA ELKARTEA
Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA
Iker Estebanez_SHOPSS
Aitziber Otegi_AEK
Mikel Aiestaran_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA
Maite Asensio_URTXINTXA
Dani Goñi_BATZEN
Zuriñe Porres_IRUTXULOKO HITZA
Luis Mari Ralla_BIZARRAIN

Euskara Zerbitzuaren langileak:

IDAZKARIAK: Edurne Otamendi (Zerbitzuaren burua) eta Alex Aisa (Hiriko Hizkuntza Normalizaziorako Atalaren burua)

EZ DIRA BERTARATU:

Ane Oyarbide_PSE (ezin etorria adierazi du)
Eneka Alvarez-EHBILDU
Mikel Lezama_PP
Juantxo Iturria_ELKARREKIN Donostia
Andoni Iraola_REALA
Aimar Insausti_EHU
Naiara Lopetegi_EUSKADIKO KUTXA
Idoia Elurbe_KUTXABANK

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko bileraren akta onartu da.

2. Aisialdirako eskaintza proposamena udan eta ikasturtean zehar

Bilera deiarekin batera bidalitako informazioa azaltzeari ekin dio Euskara Zerbitzuaren buruak. Haur eta gazteen aisialdia oinarri hartuz, euskararen erabilera sustatzeko ondoko ekintzak antolatuko dira: Oporretan Euskaraz, Udan GAZTETXOAK mintza-jolasean (AISIKASI), Udan HAURRAK mintza-jolasean (UDALEKU TRINKOAK) eta Altzako institutuan MURGILTZE ASTEA.

Xede taldeak, adina, helburuak, e.a. aldez aurretik bidalitako taulan jasotzen dira. Akta honi erantsiko zaio.

Oporretan Euskaraz jarduerak duen helburu eta hartzaile-mota zabal eta anitzarekin batera, gure hiriak dituen egoera desberdinak kontuan edukiz, behar jakinak dauzkaten egoerei neurriko erantzunak eman ahal izateko zenbait jarduera desberdin antolatu dira aurtengo udarako.

Ikasturteari begira ere, antzeko jarduerekin jarraitzea aurreikusten da: besteak beste, Haurrak Beti Jolasean egitasmoarekin.

Berritzeguneko ordezkariak adierazi du auzoetan behar handiak daudela, batik bat, etorri berrien edo hizkuntzarekin zailtasunak dauzkaten haur eta gazteekin. Ikastetxeak ere ahalegin handia egiten ari direla eta, askotan, borondatezko lana ere egiten dela. Ahalegina modu koordinatuan egitea oso garrantzitsua dela esan du.

Bagera elkarteko ordezkariak galdetu du antzeko jarduerak ikasturte honetan egin ote diren eta finantzamendua nondik egitea aurreikusi den.

Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun du, aisialdia eta errefortzu eskolak uztartuz, antzeko jarduerak egin direla haur eta gazteekin. Haur txoko eta Gaztelekuak itxita dauden egunean, astelehenetan, horretarako baliatu direla zenbait auzotan. Finantzamenduari dagokionez, oraingoan, Oporretan Euskaraz eta Haurrak Beti Jolasean jarduerak izan ezik, gainerakoak, dohainik eskaintzen dira eta finantzamendu osoa Euskara Zerbitzuak hartzen du bere gain. Hala ere, jarduera hauek izaera pilotoa dutela esan du eta, etorkizunera begira, zabaldu eta orokortzea erabakitzen bada, finantzamendua tentu handiz aztertu beharko dela gaineratu du.

3. Euskara eta kultur aniztasuna: lankidetzarako eta lanerako ildo nagusiak

Hiriko Hizkuntza Normalizaziorako Atalaren buruak kultur aniztasunaren gaia oinarri hartuz, urte honetan zehar Euskara Zerbitzuak egin duen lanketa azaldu du. Lan honen laburpena aldez aurretik bidali zitzaizen kontseilukideei eta akta honi eranstean zaio.

Era batera edo bestera, Donostian jatorri anitzeko jendearekin lan egiten duten 9 elkarterekin egin ditu bilerak Euskara Zerbitzuak: Jatorrin, Ukraina-Euskadi elkarteak, Deceval, Esperanza Latina, Mestiza, Bidez Bide, Elkarrekin Kooperatiba Txikia, Hazi eta Ikasi eta Zabalduz kooperatiba.

Aurreikusten diren lan-ildo nagusiak ondokoak dira: Euskara Zerbitzuak elkarte hauekiko hurbiltasuna lantzea, eskolaz kanpoko ekintza bereziak sortzea ezagutza indartu eta erabilera sustatzeko, xede bereziko ikastaroen eskaintza indartzea eta euskara ikasteko formula berriak bilatzea. Hau guztia bideratzeko oinarritzkoa da harrera-motak lantzea eta diskurtso egoki bat eratzea.

Bagera Elkarteko kideak esan du zaila izaten dela jatorri anitzeko jendea euskararen errealitatera erakartzea. Guk hurbildu beharra dugula beraien eremura eta Bagera elkarteak bere prestutasuna agertzen duela Euskara Zerbitzuarekin batera alor honetan lan egiteko. Esperientzia batzuk izan dituela Bagerak, Auzoko egitasmoa esate baterako, eta Intxaurrondon duela urte batzuk harrera protokolo bat ere landu zutela. Topaguneak ere lanketaren bat egin du: jardunaldi batzuk antolatu zituen (Topaldia) eta agian materialen bat egon daiteke.



Urtxintxako ordezkariak azpimarratu du eskolaz kanpoko jarduerak antolatzean hizkuntza beharrak dauzkaten haurrekin bakarrik taldeak sortzea arriskutsua izan daitekeela. Edozein ekintza egiten dela ere, ekintza horrek inklusiboa izan behar duela eta oso garrantzitsua dela diskurtsoa beti bakoitzak duen ikuspuntutik abiatzea, hau da, jatorri eta kultur aniztasuna kontuan izanda.

Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko kideak adierazi du etorri berri askoren lan-aukera ostalaritzan dagoela eta, zentzu horretan, lan horietan aritzeko ematen zaien formazioan euskarari buruzko oinarri-oinarrizko formakuntza ere sartzeari izango litzatekeela hizkuntzara hurbiltzeko modurik naturalena eta integraziorako bide eraginkorrena.

Batzen elkarteko ordezkariak ere lan-munduarekin lotu du bere hausnarketa. Bere esanetan, gure hirira bizitzera etortzen diren hiritar berriak nekez hurbilduko dira euskarara beharrik sentitzen ez badute. Lanarekin lotzea da gakoa. Eta, batez ere, ostalaritzan edo zaintza lanetan, euskarazko oinarriko ezagutza batzuk izatea ezinbestekoa litzateke.

Azkenik, EAJ taldearen ordezkariak adierazi du beharrak alde batetik eta bestetik elkar elikatzen direla eta behar horiei erantzun ematen jakin behar dela. Hasierako urratsak direla Euskara Zerbitzuak aurkeztu dituenak eta hasiera egokia iruditzen zaiola elkarteengana hurbiltzea eta beraien errealitatea ezgautzea.

4. Norberak lekarkeena

Besterik ezean, bukatutzat eman du bilera lehendakariak 19:00etan eta gogorarazi du datorren bilera azaroaren 16an egitea aurreikusi dela.